



DISKOA

Norberaren bidea



IKER BARANDIARAN

Deus ez da lortzen trukean musika pretentsio askorekin egiten hasiz gero, publikoaren onespene beharalako nahi izanez gero. Aldiz, musika egiteko indarra eta motorea zuzenki disfrutatzea bada, bide luzea daukazu aurretik eta asko daukazu disfrutatzeke. Hori da gakoa. Eta horixe da, hain zuzen ere, arrakastaren, arrakasta propioaren, giltza. Hala bizi du Eibar eta Azkoitiko kideak dituen Deus Ez hirukoteak. Aurretik dozenaka batailatzen trebatuak, 2017an proiektu honi hasiera ematea erabaki zuten motibazio eta sinesmen handiz eta hala jarduten dute.

2017an *Deus Ez* izeneko lan luzea kaleratu zuten rock-etik, punketik eta metaletik edaten duena. Harrera ona

izan zuten eta urte berean Amurriock lehiaketako lehen saria eskuratu zuten. Horri segidan, 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Katapultak ekimenaren biran parte hartzeraz gonbidatu zituzten.

Orain *Sherpak* diskoa kaleratu dute eta begi bistan dago emaitza bestelakoa dela, jautzia egin dute kantak borobiltzen eta bila ari diren soinua lortzen. Hainbat dira hirukotearen emaitzan batzen diren musika ulertzeko eta bizitzeko estiloak; baina bat egiten dute eta aurrera doaz ingurukoari begiratu gabe. Josu Ervitirekin grabatu dute Drum Groove Studioan eta masterizazioaren ardura Victor Sanchezek hartu du.



SHERPAK
DEUS EZ

AUTOEKOIZPENA, 2019.

Garaile kantak arranke gordina dauka, rock zikin distortsionatua nahiz eta erdi tempo melodikoak tartekatzen dituen. *Hegoak*-ek asko edan du Nirvanaren ondorengoetatik eta malenkonian eta urratzea daramatza batera. *Urrun* poperoa bada ere, gitarra riff misterioitsu-eder batek gidatzen du. *Sua*-k badu goxotasunetik, hard-rocketik eta metalaren pisutik. *Kateak* balada da, hegoaldeko hard-rocketik metalera amiltzen dena. *Pozoia* hard-rock, grunge eta progresibo entsalada. *Leizeari begira* Weezer eta distantzian Pixies gogora ekarri didan kanta melodiko-jostaria. *Erruki jauna* bada nolabait QUOTSAREN gorazarrea. Eta *Sherpak* kanta goibel bezain ederra. ●